

## Euskara estetika bezala

### Fermin Etxegoien

Arratsaldeon zer moduz... eskerrik asko Topaguneko lagunei Neurona eta Zeurona liburuan zegoen ideia nagusia aintzat hartzeagatik... hizkuntza batez ere estetika dela adierazten duen ideia

Orain arte kontrakoa esan ohi da gutartean hizkuntzari buruz eta batez ere euskarari buruz. Forma bai, baina batez ere fondo... Zenbateraino bata eta zenbateraino bestea? Diskutsio filosofiko amaitezina da... Formaren alde egiten dudan arren, hizkuntzaren baitan egon daitekeen fondo esistentziala guztiz onargarria zait noski.

Norbaitek esaten baldin badu euskara berarentzat erlijio bakarra dela onartzeko prest nago inongo arazorik gabe eta sinpatiaz hartuko dut seguruenik, beste gauza bat da praktika hori eredugarri ikusten dudan ala ez... eta ez dut ikusten noski.

Bizitza hizkuntzaren alde ematen duen jendea niri ez zait eredugarria iruditzen, txalogarria eta miresgarria izan liteke jende hori eta kasu askotan bada... Baina berea nekez har lezake eredu gisa gizarte osoak, jende gehienarentzat bizitzan badirelako gauza asko... askoz inportanteagoak euskararen biziraupena baino.

Liburua duela hiru urte argitaratu zen baina ez dut uste tarte honetan behera egin duenik hizkuntzaren alde formalaren garrantzia nabarmendu nahi duen joera honek... kontrakoa baizik: hizkuntzaren alde esentziala nabarmentzen duen joera krisi gorrian antzematen dut neuk behintzat, irtenbiderik gabe bezala.

Forma edota plastika linguistikoa... hizkuntza estetika bezala... zertaz ari naiz zehatz-mehatz... euskara jazkera bat bezala kontsideratzen ote nabil adibidez?

Bai, zergatik ez. Euskara deitzen den hizkuntza jantzita ateratzen naiz kalera zergatik ez. Eta besteen aurrean euskara "arropa" erakutsi beharra daukadanean zera ikusten dut: gustatzen zaidala jantzita daramadan hizkuntza... ala ez zaidala gustatzen eta agian gehiago gustatzen zaidala espainola deitzen den jazkera, edota frantsesa... are ingelesa bera.

Euskara estetika bezala... Nire herrian udal euskaltegia zegoen eta dago, pentsatzen dut. Hara ikastera apuntatu zen nire lagun bat, duela 60 urte Extremaduran jaiotako gizona... eta euskaltegitik atera zen oinarritzko esaldi batzuk euskara batueraz ikasita... nire herrirako, kapela exotiko bat jantzita bezala atera zen gizona euskaltegitik esango nuke... denda batera joan eta euskaltegian ikasitako estetika linguistiko exotiko bat erakutsi zuen nire lagunak, baina berehala konturatu zen jazkera hura ez zeukala oso gustuko ... aukeran nahiago zuen herriko hizkuntzaren jazkera, baina estetika hori ez zioten eman euskaltegian...

Batueraren aurka nago? Inolaz ere ez, baina nire lagunari guztiz antiestetikoa suertatu zitzaion euskara batuera... gure herrian eta bere ohiko inguruan... Exotiko jantzita sentitzen zen batuarekin, "faraloes" soineko batekin jantzita bezala... Ideolojia zera

pentza genezake nire lagun erdaldunaz: euskara batuera ez ezik, herrikoa ere ikas dezala tipoak... Eta baita bizkaiera batuera ere, ez dakit labetik jada atera ote duten baina nago aurki egongo dela denontzat ikasgai ... Euskal Herria errespetatzen duen pertsona batek hori guztia egin behar luke, esan ohi dugu ideolojia

Oso ondo

Baina ni ez nabil hemen justizia dibinoa egiteaz, ezta justizia historikoa egiteaz ere ... ez nabil ekolojia linguistikoaren izenean edota hizkuntza aniztasunaren onerako...

Ez

Ni hemen nabil "nire interes partikular batekin bat ez datozenak" konbentzitzeaz, neureganatzeaz... Alegia, nire interes partikularra da jendeak euskaraz egin dezan eta horretaz nahi dut konbentzitu euskaraz egin nahi ez duen jendea... nahiz batzuetan kontrakoa esan jende horrek: alegia, esaten dute nahi dutela euskaraz hitz egin eta bizi, baina gero ez dute egiten

Beraz ni ez nabil unibertuala izan nahi duen lejitimazio iturri batetik, baizik eta guztiz partziala eta interesatua den nire abiapuntu pertsonal batetik: alegia, nik nahi dut jendeak hitz egitea "nik nahi dudana hizkuntza".

Hori abiapuntu bezala hartzen dut, gero gaizkiulertuak egon ez daitezen.

Nola besteak neureganatu?

Ideolojiaren bitartez adibidez... guztiz zilegia iruditzen zait hizkuntzaren alorra ideolojizatu nahi izatea, ni neu behintzat ez nago hizkuntza ideolojizatzearen aurka.

Kontua da ea zerbaitetarako balio ote digun orain eta hemen... Balio izan digula ez daukat dudarik, kontua da ea orain eta hemen balio digun ala alperlana ote den, edota kontraproduzentea..

Izan ere, nahiz guk ideolojizatu... hizkuntzak sekulako gaitasuna dauka berehala "bere burua desideolojizatzeko"... Alegia, fondoa galtzeko eta forma modura gelditzeko hitzunaren baitan.

Gu saiatzen gara euskaraz hitz egitearen beharra ideolojizatzen... baina hizkuntza bera berehala desideolojizatzen zaigu eta behin eta berriro zera ematen du: euskaraz hitz egitearen behar ideolojikoak soilik harrapatzen dituela hizkuntzaren inguruan edota hizkuntzari esker bizi garenok, eta askotan ezta gu geu ere.

Hizkuntzaren alde ideolojiak ez dauka zereginik orduan?

Urte hauetan denetarik esan izan da euskararen fondoari buruz: hizkuntzak "pertsona bezala osatzen gaituen lehen ezaugarria dela" esan izan du profetaren batek... hizkuntza "mundua begiratzeko modu bat dela" esan izan digu poetaren batek... tira,, behin Kirmeni berari komentatu nion: orduan zuek, bira poetiko-musikal horrekin, izan zarete

Dublinen, Alemanian, New York-en, Bartzelonan... "euskara, mundua ikusteko manera bat"... bai horixe!

Euskara hori guztia omen da, baita gehiago ere... batzuen ustez "matriarkalismoaren kosmobisioa" bideratzen du euskara gureak.

Zoritxar ala zorionez, nire moduko sinesgabeoi ez zaigu zaila egiten hamaika arrazoi berehala aurkitzea ideia handiuste horiekin bat ez etortzeko...

Sinesgabeoi euskara behin eta berriro ageri zaigu apaindura espiritualik gabe eta forma huts bezala... zinez ederra bere soilean.... Euskararen estetika paregabeak ez dauka fondo trszendentearen beharrik gure modukoontzat.

Baina ez bakarrik gure moduko esteta zaleontzat... Hitzun arruntei ere, hizkuntzaren jarduera desideolojizatu egiten zaie oso erraz... Izan ere hitzun arrunt askorentzat euskaraz hitz egitearen jarduera, orain eta hemen, ez dagokio

horrenbeste motibazio ideolojikoari... baizik eta motibazio estetikoari.

Gure eginkizun nagusia, beraz (hizkuntzaren inguruan bizi den jendeaz ari naiz) eredu linguistiko erakargarria eskaintzea da, hiztunak erakarri nahi baldin baditugu. Gainerako motibazio guneak egun bigarren mailakoak iruditzen zaizkit.

Garai batean balioko zuten, orain apenas balio dute. Eta egunen batean -iragarpena egiten ere ausartuko naiz- euskalgintzan tabu bilakatuko da ideiak erabiltzea - ideolojia erabiltzea- euskararen aldeotasuna eskatzeko... Seguru nago pendulua kontrako muturreraino ailegatuko dela denboraz.

Gainera oso bihotz-suntsigarria da ideolojiaren kontu hau. Izan ere hizkuntza ahularen aldeko ideologiak ez funtzionatzeak -alegia, euskararen aldekoak- horrek ez du esan nahi hizkuntza indartsuaren aldeko ideologiak funtzionatuko ez duenik... kontrakoa baizik!

Hizkuntza fuerteak are fuerteago bilakatzen dira ideolojiari esker... baina hizkuntza ahulak are ahulago bilaka daitezke. Zergatik? Ideologiak ezartzen dituen espektatibak betetzeko gauza ez direlako hizkuntza ahulak, hain zuzen egoera ahulean aurkitzen direlako adibidez "kosmobisio espektatiba handiak" bete ahal izateko.

Beraz jarraitu behar al dugu aitzakia, argudio zein arrazoibide lojiko, ideolojiko, profetiko zein poetiko hizkuntzari buruz asmatzen... hiztunak euskarara erakartzeko?

Amodioan eta gerran dena da zilegia... baina hizkuntza ahularen aldeko ideologiak jada ez du funtzionatzen. Euskara berez desideologizatzen zaigu oso azkar eta berdin berdin gertatuko litzateke... baita Euskal Herri independentean ere.

Ideolojiaren menpe uzten baldin badugu euskara, Euskal Herri independentean ere ez luke aurrera egingo... Zergatik? Erdarak sekulako abantaila hartu diolako euskarari eta ondorioz estetikoki osatuago ageri delako Euskal Herriko hiztun askorentzat.

Gainera abantaila hori injustizia historikoaren ondorio izateak ez du egoera samurtzen: euskararen kontrako injustizia historikoaz konziente izan arren, hiztun askok erdara hautatzen dute hizkuntza "osatuago" sentitzen

dutelako... eta ondorioz “osaketa lana” egin beharrik haiei  
-hiztunei- eskatzen ez zaielako... Euskara ondo  
menperatzeak ez bezala: horretarako norberak egin behar  
du osaketa lana... eta ez da lan makala.

Zertan oinarritzen naiz erdara osatuta dagoela eta euskara  
ez... esateko?

Ondorengo ideia honetan:

Espainolaren eredu batuera oso garbi dago denontzat...  
baina espaiolera batuera ez ezik espainolaren eredu  
anitzak ere oso ulergarri eta disfrutagarriak egiten zaizkigu  
gehienoi.

Txikito de la Calzada, adibidez... Hizkuntza eredu oso  
partikularra dauka, baina unibertsal bilakatu zen... gaztelania  
menperatzen dugunon artean.

Euskaraz gauza bera lortu beharko dugu noski, ebidentea  
da: eredu batuera garbi egotea denontzat... baita  
euskararen aldaerak ere ulergarri eta disfrutagarri  
bilakatzea denontzat ere.

Baina oraingoz ez dugu denporarik eduki horretarako, ez  
dago beste misteriorik...

Denbora behar dugu euskara estetika linguistiko “totala”  
bilakatzeko: alegia, bakarra bere anitzean eta anitza bere  
bakarrean... Bitartean euskararen eredu batuera artifisial  
xamarra suerta daiteke zenbait egoeratan eta normala da...  
Bitartean aldaera lokalak lar hetereojeneo dira hiztun  
askorentzat eta hau ere normala da... Denbora behar  
dugulako euskara estetika bakarra bezain anitza  
bilakatzeko... Baina horretaz konsziente egin behar dugu  
ahalegina: langai estetikoak daukagula moldatzeko eta ez  
horrenbeste langai ideologikoa.

Euskal Herriko hiztun asko ataka batean bizi dira bere  
buruari galdetuz gero zein hizkuntza nahiago duten.  
Bihotzak euskara dio, are buruak ere... Baina azken batean  
erabaki hau ez da ez fede erabakia ezta erabaki  
intelektuala ere... erabaki estetikoak baizik!

Gezurra dirudi ezta? Exajeratzen ari naizela... Baina denok  
ezagutzen ditugun hiztun ugari ataka horretan daude hain  
zuzen.

Zein hizkuntza hautatuko, erdara ala euskara? Hautu hori  
hautu estetikoak da hemengo hiztun askorentzat... Denontzat  
ez noski, baina askorentzat bai... eta bigarren multzo  
honetan dauden hiztunak behar beharrezkoak ditugu gure  
hizkuntzaren osasunerako eta osotasunerako.



Orain eta hemen, gutariko asko oso libre gara, euskaraz bizi nahi dugun ala ez erabakitzeke... Baina gure diskurtsoan sakralizatu egin dugu euskaraz bizi beharra... eta ondorioz ez da erreza kontrakoa aitortzea: alegia, espainolez gusturago bizi garela edo bizi daitekeela.

Honelakorik aitortzen ez denez, egiten dena da beste norbaiti errua bota.

Hau da: euskaraz bizi nahi ez duen "aldeko" jendeari lasai asko uzten zaio euskaraz ez bizitzen... baldin eta errua erdarari edo Espainiari edo sistemari edo Jaurlearitari edo PNVri edo ETB2ri edo patriarkalismoari edo indoeuropear herriei... edo behar den etsaiari egozten baldin badio. Bururatzen zaidan salbuezen bakarra Gara egunkaria litzateke, hemen gutartean espainola nagusi izateaz kulpa ez daukan agente erdaldun bakarra dirudienez.

Laburbilduz: batzuek ez dute euskaraz bizi nahi baina euskararen alde daudela erakusten dute beti. Sinonimo bilakatu ditugulako euskaraz bizi nahi izatea eta zuzentasun morala, zein kontrakoa: euskaraz bizi nahi ez izatea eta okerkeria morala.

Halere ez dugu lortzen "aldeko" jende askok bere burua euskaraz bizitzen behartzea, beti daukatelako aitzakia ezin hobea euskaraz ez bizitzeko... errua beste norbaiti egotzita. Lortu dugun bakarra zera da: euskaraz bizi nahi ez duen "aldeko" jendeak bere buruari ez aitortzea benetan nolakoa den.

Eskizofrenia hau elikatzen jarraitzen baldin badugu, honek ez dio inongo onurarik ekarriko euskarari...

...baina gero eta gazte gehiago, adibidez, hasi zaio bere buruari egia aitortzen.

Gazte horiek ongi dakitelako zein estetika linguistiko maite duten eta zein ez, eta aurrerantzean ez dira horretaz lotsatuko ez horixe .

Hizkuntza gorde beharra aipatzen dugunean etikatik mintzatzen gara, baina gero sistema estetiko baten efektuaz funtzionatzen du hizkuntzak hiztun askorengan, batez ere gazteengan...

Eta hor benetan balio diguna zera da: hiztunok hizkuntzarekin gustura sentitzea. Jakinekoea denez, euskal hiztunetarik askok erdararen estetika osoa hautatzen dute euskararen estetika zatikatuaren kaltetan.









Irakurritz gero, gaur egun euskara batua ulerterrazago egiten zaio hiztun askori entzunda baino. Kontrakoa zela pentsatu izan dugu, gurea kultura ahozkoa delakoan... Baina gauzak azkar aldatzen dira: gaur egun jende gehiagok errazago ulertzen du Berria Wazemank baino, nik neuk adibidez.

Itzulpenaren arazoa nola konpondu beraz? Gutxiago eta ximpleago bikoiztuz, jendearen minimo linguistikoak aintzat hartuta!

Baina ez, gure Herrian ez dago minimo linguistikorik, dena da maximo: bestela badirudi euskara bera gutxien ari garela eta euskararen baliabide oparoak ukatzen gabiltzala... Ideolojia okerra noski.

Duela hogeitun urte modu handiustean pentsatzea, tira. Baina emaitza negargarriak ikusita ere berdin jarraitzea...

Euskarara perfektu bikoiztutako pelikulak tramankulu irenstezinak izan dira lehen egunetik eta gaur arte. Nigatik balitz errazkeriaraino sinpletuko nituzke itzulpenak!

Baina normalean ez dugu horrelakorik egiten, guztiz kontrakoa baizik.

Euskararen ezagutza eta erabilera zabalagoa izan dadin ekimen asko burutu izan ditugu azken urteotan... ia beti, hiztunen inplikazioa edota konpromisoa bultzatuz.

Oso interesgarria litzateke kontrakoa lortuko bagenu... Euskara modu inboluntarioan sartzea hiztunen jardueran.

Norberaren borondatezko ekimen aktiboa euskara izatetik, barrutik kanpora irteten den hizkuntza izatetik... norberaren baitan loratzen doan errealitate pasiboa bilakatzerako, kanpotik barrurantz sartuz doana.

Nola lortuko genuke gure biztanleak gero eta euskaldunago izatea... haiek konturatu gabe nolabait esan?

Hizkuntzaren minimo linguistikoak gizartean irudikatuz adibidez, hitzak eta irudi osagarriak gizartean zabalduz demagun... izkutuko pedagojia baten bitartez.

Ez dut uste horrelakorik inoiz egin dugunik, kontrakoa egin izan dugu beti: normalean euskaraz idatzita -askotan euskarara itzulita- gizartean aurkitzen ditugun mezuetan - izan publizitate iragarkiak izan administrazioaren aholku zein aginduak- euskarak ez du erakusten "ulerterraza izateko bokaziorik" lehenik eta behin... erdararen pare gelditzearen bokazioa erakusten du lehenik eta behin, zinemagintzan bezala... Baina horrela nekez ailegatuko



